



LEGAZPIKO  
UDALA

## Euskal Jolasen festa familian, urriaren 26an Izenematea On-line, urriaren 24ra arte

Sorgintxulo Aisialdi Taldeak, Hezkuntza zerbitzuaren eskariari erantzunez, datorren larunbatean, urriaren 26an, Euskal Jolasen Festa egingo du, arratsaldeko 17:00etan, Euskal Herria plazan. Eguraldi txarrarekin, Azokan.

Familiei zuzenduriko ekintza da honakoa. Helburua haurrak eta gurasoak elkarrekin, jolasean eta kantuan aritzea da. Hauxe 14.edizioa da.

4 urtetik LH-4. mailara arteko haurrek eta beraien aita-amek har dezakete parte. Ordu bete pasatxo igaroko dute jolasean eta hainbat jolas eta kantu ikasiko dituzte, ondoren praktikan jar ditzaketanak.

### Izenematea On-line, urriaren 24ra arte

Orain arte izenematea ikastetxeen bidez egin den arren, oraingoan On-line egingo da, udaletxeko webgunearen bidez, urriaren 24ra arte.

Gurasoek eta seme-alabek izenemate bakarria egin beharko dute. Haurrek bakarrik ezingo dute izenik eman. Hau da, haur guztiak pertsona heldu baten ardurapean egongo dira.

Izenematea lotura honetan klik eginez egin daiteke:

[https://www.legazpi.eus/index.php?option=com\\_rsform&formId=33](https://www.legazpi.eus/index.php?option=com_rsform&formId=33)

Sorgintxulok burutuko duen ekintza hau

*Haur eta gaztetxoek aisialdian euskararen erabilera bultzatzeko programaren barruan kokatzen da, Udaleko Gazteria, Euskara eta Hezkuntza zerbitzuek antolatzen dutena.*

Aurrera eraman duten azken jarduera *Trikornio txapelketa* izan da.

Hurrengo hilabetetan honakoak egingo dituzte:

*Txuri Urdin izotz jauregira irteera eta Lakiolara irteera.*

[Ikusi Kartela](#)



**LEGAZPIKO  
UDALA**

## **El 26 de octubre, juegos en euskara en familia**

**Inscripción On-line hasta el 24 de octubre**

Dando respuesta a la solicitud del servicio de Educación, el grupo de Tiempo Libre Sorgintxulo, realizará el próximo sábado 26 de octubre la "Euskal Jolasen Festa" (Fiesta de juegos en euskara), a las 17:00 hs. en Euskal Herria plaza. Con mal tiempo, en la Azoka.

Esta es una actividad dirigida a las familias. El objetivo es que niñas/os y madres/padres jueguen y canten juntas/os. Esta es la 14ª edición.

Pueden participar las/os niñas/os de entre 4 años y 4º de Educación Primaria junto con sus madres/padres.

Pasarán algo más de una hora jugando y, aprenderán un montón de juegos y canciones en euskara, que más adelante podrán poner en práctica.

### **Inscripción On-line hasta el 24 de octubre**

Si bien hasta ahora la inscripción se ha realizado en los centros escolares, esta vez será On-line y se realizará a través de la página web del ayuntamiento hasta el día 24 de octubre.

Las madres/padres e hijas/os realizarán una única inscripción. Las/os niñas/os no podrán inscribirse solas/os. Es decir, todas/os deberán estar bajo la responsabilidad de una persona adulta.

La inscripción se puede realizar haciendo clic en este enlace:

<https://www.legazpi.eus/es/juegos-en-euskara-en-familia>

Esta actividad que realizará Sorgintxulo se incluye, dentro del *Programa destinado a niñas, niños y adolescentes para impulsar el uso del euskara en el tiempo libre*, que se organiza desde los servicios municipales de Juventud, Euskara y Educación. La última actividad que han realizado fue *el Trihornio txapelketa*. En los próximos meses tendrán las siguientes: *salida al Palacio del Hielo Txuri Urdin y salida a Lakiola*.

[Cartel](#)